

Eliza  
berritu  
dute

Bihar,  
inaugurazioa ▶ 5



TOLOSA ▶

Musika,  
dantza eta  
zinema  
iraila bitarte

Udal Batzordearen  
eskutik, hilaren 9an  
hasiko da Gau Giro ▶ 3

ASTEASU ▶

Koadrilen  
Egunean 70  
lagunek egin  
dute bat

San Pedro jaiek gaur  
jarraituko dute ▶ 4

AMASA ▶

Erraustegi  
planta  
herrian  
kokatu  
dezakete ▶ 5

IRURA ▶

Montmelon  
irabazi egin  
nahi du  
Lopetegik ▶ 6

ARESO ▶

Eskol-etxeko  
inbertsioak  
onartu ditu  
Udalak ▶ 7

## Aker Ibarra mailaz jaitsi eta Lehen A-n ariko da

**ARAZOAK** ▶ Zilarrezkoan aritzeko arazo ekonomikoak ez ditu gainditu  
**LAGUNTZA** ▶ Babesleak lortzeko lan handiak egin ditu ▶ 6



## Errebote partidaren 75. urtemuga santiotan

**VILLABONA** ▶ Uztailaren 24tik 29ra izango dira aurtengo Santio jaiek. Atzo aurkeztu zuten egitaraua eta kartela udal arduradunek eta Villabona-Hazparne lehen errebote partidaren 75. urtemuga nabarmendu zuten. Horrekin batera haurren ekintzei garrantzi berezia emango dietela azaldu zuten Asier Vitoria kul-

tur zinegotziak eta Koldo Etxabe kultur teknikariak —argazkian—. Elkarteen eta herritarren laguntza eskertu zuten, «batez ere Onddo Gazte Asanbladarena». Txupinazoa botatzeaz arduratuko dira. Musikaren alorrean, Sociedad Alcoholicoa, Otxabiko DJ eta disko festa izango dira Santio jaietan. GARAZI AZKUE ▶ 3

# Km 0 hemen dago



**VOLVO S40 1.9 Diesel**  
Km 0 eta enpresa = 115 CV  
**19.800 €** (3.295.000 PZTA)  
PREZIOA **23.820 €** (3.960.000 PZTA)



**VOLVO V40 1.9 Diesel**  
Km 0 eta enpresa = 115 CV  
**20.975 €** (3.490.000 PZTA)  
PREZIOA **25.195 €** (4.190.000 PZTA)



**LR DEFENDER 90 TD5**  
Enpresan erabilia = 122 CV  
**23.500 €** (3.910.000 PZTA)  
PREZIOA **29.940 €** (4.980.000 PZTA)



**VOLVO S60 2.4 Diesel**  
Km 0 eta enpresa = 130 CV  
**26.900 €** (4.475.000 PZTA)  
PREZIOA **30.100 €** (5.010.000 PZTA)

**FINANTZIAKETA BEREZIA 120 HILABETERA • 5 urteko bermea**

**Eusko Jest**

Donostia-Hernani errep. • Tel. 943 33 18 16 • HERNANI (Galarreta pilotalekuaren eta Opel Auto Hernaniren ondoan)  
ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera 9:00etik 13:00etara eta 15:30etik 19:30era, Larunbatetan 10:00etik 13:00etara • 04/08/07 arte balio duen eskaintza

SANJOANAK: BALANTZEA ▶

# Festak, «politikak»

Sanjoanetako balantze baikorra egin dute Tolosako Udalak eta herriko elkarteek



Sanjoan egunean ehunka herritarrek, elkartek eta taldek hartu zuten parte udal agintariekin batera. Argazkian, Triangulo plazan. IRATXE ETXEBESTE

## IRATXE ETXEBESTE - LEIRE MONTES

Tolosako udal ordezkariak, Festa Batzordeko, talde eta elkarteetako ordezkariak eta herritarrekin batean, balantze baikorra egin dute San Joan jaien inguruan. Orobat ondo joan dira ekitaldiak, eta festa politikak izan dira aurtengoak haien iritziz. Gainera, jendearen parte-hartzea ere handia izan da; hainbat ekitalditan, «uste baino askoz handiagoa». Ekitaldien berri sailkatuta eman dute, honela:

## EKITALDI TRADIZIONALAK

**San Joan sua.** «Polita izan da, eta telebistak zuzenean bertako irudiak ematea ondo dago. Ea aurrerantzean ere hala egiten duten».

**Eskopetariak.** «Zergatik ez da errepidea mozten guztiak sartu ahal izateko?», zioten eskopetariak bileran. Udalak aztertu beharreko gaia dela erantzun zien. Bestalde, eskopetariaren jardunari buruz, desfile-tzean formak galdu egiten direla esan dute, batez ere, arratsaldean. «Festa ekitaldia da, baina seriohasuna mantendu egin behar da». Ildo horretatik, mugak finkatu behar direla uste dute parte-hartzaileek, armekin ere kontuz ibili behar delako. «Kapitainen arteko bileran aztertu behar da gaia». Orohar egun polita izan dela diote, hala ere, baina bada hutsune bat: «Jendeari alardea zer den azaldu behar zaio, ezjakintasuna dagoelako horren inguruan».

**'Bordondantza'.** Ondo —ez zen bileran Udaberriko ordezkariak izan balantzea egin ahal izateko—.

**Aureskua.** Eguneko azken ekitaldia den aldetik, parte-hartzaileei «luze egiten» zaie iluntzeko aureskura arteko denbora. «Jendea bazen», hala ere, eta horrek esan nahi du herritarrek atsegin dutela.

**Prozesioa.** «Prozesioa eta jendea Santa Mariatik ateratzen denean eta eskopetariak salbak botatzen dituztenean handia da arriskua. Seguritasun distantzia mantentzea derrigorrezkoa da, eta arau hori bete egin behar da». Santa Marian inoizko jende gehien bildu zela diote antolatzaileek. Bestalde, lau santu eliza barruan geratu dira, haiek eramateko jendea falta zelako. «Arazo hori konpontzeko bidea izan daiteke elkartei prozesioan parte hartzeko proposatzea».

## MUSIKA EMANALDIAK

**Gaueko kontzertuak.** Gazteak «pozik» daude kontzertuekin: «Jende dezente bildu da, eta giro polita sortu dute Plaza Berrian». Euskal Herria plazak, oster, ez duela funtzionatzen uste dute, oso handia delako. Udalak dio herritarrek gune ezberdinetan banatzeko antolatutako zituzela emanaldi batzuk bertan. Bonbereneako kolaborazioa «nabaritu» egin da, bestalde, gazteek zuzenean hartu dutelako parte festan eta lan ona egin dutelako.

**Dantzaldi 'karroza'.** «Ez du arrakastarik».

**Txarangak.** Batzutan oso baikarik jardun dutela esan dute balantzea egiterakoan, baina Koadrila Egunean, esaterako, oso giro ona jarri zuten.

**Txistularien alardea.** Jende asko erakarri zuten, eta «oso ikuskizun polita» eskaini zuten txistulariek Berdura plazan. Bi urtez behin egiteko asmoa dute aurrerantzean.

## IKUS-ENTZUTEKOAK

**Pireteknia.** Bi su etxe ekarri dituzte, eta San Joan Eguneko su artifizialak «oso onak» izan zirela esan dute: zubiaren erabilera «ikusgarriago» egin du emanaldia. Aurrerantzean urtero bi konpainia ekartzeko asmoa agertu dute horren harira, haien artean lehiazteko. Aurten «diru gehiago gastatu da» pireteknian.

**Erraldoien topaketa.** Apustu garrantzitsua zela, eta «zorgarri» irten duela zioten. «Giro ederra jarri zuten herriko eta kanpotik etorritako erraldoiek eta buruhandiek; jende asko erakarri zuten».

**Graffiti lehiaketa.** Jarrera ona izan dute parte-hartzaileek ekimen berriarekiko antolatzaileen aburuz, eta orohar, jendeak ere bai. Kanpotik jende asko etorri da herrira, eta 12 eta 17 urte bitarteko gazte txoak inplikatu egin dira: «Hori, berez, oso zaila da». Udalak adierazi du akordioa egingo duela. Laskorain Ikastolara doan bideko paretan «gazte txoek margotu dezaten; haien tzat izan dadin».

**Batelak.** Ikusmina espero zen, baina aurreikusitakoa baino askoz jende gehiago bildu da estropadak ikustera. Horixe pentsatzen dute sanjoanetako antolatzaileek. Betidanik egon da afizioa haien hitzetan, eta «oraindik ere bada». Herritar batek halaxe esan zuen: «Hobeto egin zitekeen: ibaia presatatu, arraunean ikasi; hori bai, ahalegina eta egindako lana onartu egin behar zaie». Orokorrean, hasteko modua izan dela zioten gehienek, eta ekimenari eutsi egin behar zaiola. Irtenbidea presa puzgarria jartzea litzatekeela ere bazioten, baina «diru eta tramitazio asko eskatzen du horrek, eta presak jartzea oso zaila da, gainera, aurkako jarrerak badirelako». Herritarrek ikuskizunera bildu zirela esan dute bileran, Tolosaldeak «estropada gosea» duelako.

**Artetaren errezitaldia.** Zoragarria eta bikaina izan zen Ainhoa Artetaren errezitaldia. Horixe zioten bileran: «Arrakasta izan zuen, Leidor gainekoa izan baitzen».

## BESTEAK

**Koadrila Eguna.** Oso balorazio ona egin dute. Hala ere, Udalak «karpa bat lortzeko ahalegina egin behar luke Plaza Berrirako, beroa eta euria ekiditeko». Udalak dio aztertuko duela hori, «arazoari irtenbidea eman behar zaiolako». Gero eta jende gehiago hartzen du parte, eta «giro aparta sortzen da». Aurten «izugarri» jan du jendeak: 480 kilo haragi. Aztertu beharreko beste batzuk: ziki-rorako harri txintxorra behar dela hondarrien ordeztu eta itzaltzeko mangera lehenago eraman behar dela.

**Txupinazoa.** «Gero eta jende gehiago joaten da bertara».

**Azoka berezia.** Eguraldi txarra egin du aurten, eta «eragina» izan du horrek azokan.

## KIROL PROBAK

**Txirridularitza.** Beste urtetan baino hobea izan da proba, baina «gehiago koordinatu behar da» eguneko ekitaldiekin, jende asko ibiltzen baita kalean. Garbiketa zerbitzuaren «lan ona» azpimarratu behar da, bestalde.

**Kale saskibaloia.** «Oso ondo ateratu zen; pena, finala presakegin behar izana euriagatik».

**Xakea.** «Oso maila ona eman dute partaideek; hala ere, kexa bat badugu: Zerkausiko toldoa jaistera ez zen udaltxeko inor etorri euria hasi zuenean».

**Orohar.** 21 kirol ekitaldi izan dira sanjoanetan, eta «guztiak koordinatu beharko liriteke».

**Herri Irratia**  
RADIO POPULAR

Herri Irratia-ak premia handiarekin behar du:

## MERKATAL AGENTEA

Gipuzkoa eremurako. Berezko ibilgailua eskatzen da. Bezeroen kartera eta adostu beharreko baldintzak eskaintzen dira. Interesa dutenak bidali curriculum vitae-a.

Herri Irratia, Garibai 19, 20004 DONOSTIA helbidera, info@herri-irratia.com helbidera edo deitu 943 423 644 edo 943 43 02 24 telefono zenbakira.

VILLABONA ▶ GIZARTEA

# Villabonako Santio jaietako egitaraua aurkeztu du Udalak

Villabona-Hazparne lehen errebote partidaren 75. urtemuga nabarmendu dute; haurren ekintzek garrantzia izango dute



Koldo Etxabe kultura teknikaria eta Asier Vitoria kultura zinegotzia, atzoko prentsaurrekoan. G. AZKUE

**GARAZI AZKUE**

Villabonako Santio jaiak hilaren amaieran hasiko dira, baina festetan izango diren ekintzak prestatu dituzte dagoeneko. Ikuskizun eta ekitaldi horiek guztiak aurkezteko bildu ziren atzo Villabonako udalletean, Koldo Etxabe kultura teknikaria eta Asier Vitoria kultura zinegotzia.

Uztailaren 24an hasiko dira Santio jaiak, eta, uztailaren 29a bitarte izango da zer ikusi eta zertan parte hartu Villabonan. Egunei dagokionez, aurten lehen aldiz, uztailaren 28a ez da festa eguna izango.

Asier Vitoria Villabonako Udaleko kultura zinegotziak, eskerrak eman zizkien aurtengo Santioak antolatzeke, Fes-

ten Batzordean bildu diren guztiei; bai herriko elkarteen eta baita pertsona partikularrei ere. «Herriko elkarteei eta herritarrek egindako lana garrantzitsua da festak antolatzeke unean, beraiek antolatzen baitituzte». Elkarte guztien artean, Onddo Gazte Asanblada azpimarratu zuen Vitoriak, «aurten bereziki» parte hartu baitute antolakuntzan; eta hauek botago dira, aurten, txupinazoa botatzeaz arduratuko direnak.

Prestatu duten egitarauan bada azpimarratzeko moduko ekintzarik. Batetik, aurten berteko dira 75 urte Hazparne eta Villabonaren arteko lehen errebote partida jokatu zela, eta data hori aintzat hartu nahi izan dute. Partida jokatzear

gain, omenaldia egingo diote norgehiagokari berari, eta baita, Villabonako eta Hazparneko errebote jokalariei ere.

Bestalde, haurrei zuzendutako ekintzak nabarmendu zituzten atzoko agerraldian. «Ia egunero dago haurrei zuzendutako zerbaite».

Urtero izaten den kontzertuan berriz, Sociedad Alcoholicataledea izango da festetako azken egunean. Horretaz gain, pasa den urtean egin zuten Otxabiko DJ jaia errepikatuko dute, eta gaztetxoentzat, Disko festa izango da plazan.

Aurrekontuari dagokionez, ekintzetan, 80.000 euro gastatuko ditu Udalak.

Programaren azalaren irabazlea Arkaitz Morabide billabonatarra izan da.

TOLOSA ▶ KULTURA



Iñaki Salvador iazko Gau Giron, Fronton kafetegian. JOXEMI SAIZAR

## Musika, dantza eta zinema udako gauetan

Urtero bezala, Gau Giro programazioa aurkeztu du Udak Kultur Batzordeak

JOXEMI SAIZAR

Udako gauetan Tolosan ere zer ikusia eta entzuna izango da, azken urteotan bezala. Udak Kultur Batzordeak aurkeztu du aurtengo Gau Giro programa, herritarrek gauetz kalera ateratzeko —saio gehienak kalean baitira— egiten duen musika, dantza eta zinema gonbitea.

Antolatutako bederatzi ekitaldietatik gehienak —sei— musikalak dira, eta musika lasaia bezala defini daiteke. Horietako lau plaza Berrian izango dira. Hasteko, musika mexikarra entzun ahal izango da datorren asteke ostiralean, Los Veracruz taldearen eskutik. Astebete geroago jazz doinuak eskainiko ditu Joxan Goikoetxea Triok. Hilaren bukaeran Tolosako Musika Bandak San Ignacio bezperako ohiko kontzertua interpretatuko du, garai batean dantzarako erabiltzen zen musikarekin. Eta abuztuaren bukaeran bossa nova entzungo da, Jeshmar taldearen eskutik.

Beste bi kontzertu Fronton kafetegian izango dira: latin jazz egiten du Guarayra taldearena eta Zurian beltz jazz taldearena.

**EGITARAUA ▶**

**Uztailak 9.** Los Veracruz. Plaza Berria.

**Uztailak 16.** Joxan Goikoetxea trio. Plaza Berria.

**Uztailak 22.** Esloveniako dantza folklorikoak. Euskal Herria plaza.

**Uztailak 23.** Guarayra. Fronton kafetegia.

**Uztailak 30.** Tolosako Musika Banda. Euskal Herria plaza.

**Abuztuak 3.** *Pianojolea*. Amaro.

**Abuztuak 4.** *El jurado*. Amaro.

**Abuztuak 27.** Jeshmar. Plaza Berria.

**Irailak 3.** Zurian beltz. Fronton kafetegia.

\* Frontoneko saioak 23:00etan, beste guztiak 22:30ean.

Zinema aire librean eskainiko da Amaro zuoan. Bi film izango dira, bat euskaraz —*Pianojolea*— eta bestea gaztelaniaz —*El jurado*—.

Azkenik, dantza ikuskizun bat ere izango da. Esloveniako dantza folklorikoak ikus ahal izango dira Euskal Herria plazan.

**IRIARTE**  
jatetxea

Tolosaldeko eta Leitzaldeko  
**HITZ**Arekin elkarlanean

IRIARTE JATETXEAk oparitutako 2  
lagunentzako afaria ederraren irabazlea:  
**FERMIN EIZAGIRRE (LIZARTZA)**  
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN!

## GAURKO EGITARUA ▶

## ASTEASU

**11:00.** Haurren krosa eta marrazki lehiaketa.  
**14:00.** Haurren bazkaria.  
**Ondoren.** Haurrentzat antzerkia: *Gaixotzea ez da txanba*. Eta jolasak.

**17:00.** Asteasuko XVIII. Mus Txapelketa Herrikoia.  
**23:30.** Diskotop diskofesta.

## AMAROS

**08:00.** Garbiketa orokorra, Txukun-Txarra-Zaharra

taldearekin.  
**09:30.** Diana.  
**10:30.** Txirrindularitza proba: IV. Patxi Rodriguez memoriale.  
**10:30.** Fatxada eta balkoi loratuen lehiaketa.  
**11:30.** Bakailao ajoarriero erara lehiaketa.

**12:00.** Gimnastika erritmikoa izango da.  
**14:30.** Lehiaketaren emaitzak. Ondoren, herri bazkaria.  
**16:30.** II. Mus Azkar Txapelketa.  
**22:00.** Amaroizko danborrada.  
**23:30.** Akelarre taldea.

**24:00.** Dantzaldia, Zelaia anaiekin.

## URKIZU

**20:00.** Suziriak eta kanpaiak.  
**Ondoren.** Auzoko afaria. Gaua trikitilariak alaituko dute.

## ASTEASU ▶ SANPEDROAK

## GARAZI AZKUE

San Pedro jaietako egun erdiak igaro dira jada baina umorea eta festarako gogoia ez zaie agortu asteasuarrei. Atzo izan zuten Koadrilen Eguna eta gazte ugari bildu zen herriko plazan antolatutako bazkarian.

Asteasuko Gazte Asanblada izan zen koadrilen arteko bazkaria antolatzeaz arduratu zena. Eguerdian elkartu ziren guztiak, 70 gazte inguru. Arratsaldean ere izan zuten ekintza polita; Gazte Asanbladak futbol partida bitxia antolatu baitzuen. Xexenak askatu zituzten, bi taldeak futbolearen bitartean. Eta ondoren, kontzentrazioan bildu ziren.

Haurrentzat ere izan zen ikuskizuna, Gorritiren animaliak gerturatu ziren Asteasuko plazara. Eta arratsalde guztian zehar ibili ziren herrian Incansables txarangako kideak.

Gauean, herri afarian bildu ziren herritarrek, eta Trakets taldearekin dantzaldia egiteko aukera izan zuten koadrila egun honetan.

Eta atzo Koadrila Eguna bazen, gaur haurren eguna da Asteasuko sanpedrotan. Goizean hasiko da festa krosarekin eta marrazki lehiaketarekin. Eta bazkariaren ondoren, Zizurkilgo Denbora antzerki taldearen *Gaixotzea ez da txanba* pailazo emankizuna ikuste-

# Koadrilen Eguna atzo sanpedrotan

Eguraldia lagun zutela, 70 gazte inguru bildu ziren plazan bazkaltzeko



70 lagun bildu ziren Gazte Asanbladak antolatutako bazkarian. G. AZKUE

ko aukera izango dute Asteasuko haurrek.

Helduentzat, mus txapelketa ere gaur arratsaldean izango da.

Eta festak bihar amaituko

dira. Kirol ekintzak izango dira biharkoan nagusi, esku pilota partidak eta pala txapelketako finala izango dira goizean; eta, herritarren arteko herri kirolak arratsaldean, besteak beste.

## AMAROS ▶ JAIK



Umeek ederki pasatu zuten atzo arratsaldean jolasetan. JOXEMI SAIZAR

## Haurrek eman zieten hasiera auzoko jaiak

Haur jolasetan eta txokolatadan ume askok hartu zuten parte; gaur gauean, danborrada

## ERREDAKZIOA

Urteroko jaiak txikienean eman zieten hasiera atzo arratsaldean Amaroizko auzoan. Haur jolasetan partaidetza handia izan zen eta are gehiago ondorengo txokolatadan, sariak banatzen ari ziren bitartean.

Ondoren Tolosako Musika Bandaren kontzertua izan zen Luis Mari Gartzia Artetxeren zuzendaritzapean. Euskal Herriko eta atzerriko doinuekin batera, ez ziren faltatu errepertorioan jada ohitura bihurtu diren sanferminetako dianak.

Gaueko disko festan ere auzotarren eta kanpotarren parte-hartzea handia espero zuten antolatzaileek.

## Gaur, ekitaldi ugari

Gaurko ere egitarau oparoa prestatu dute Amaroizen. Gaueko danborrada izango da plater nagusienetakoa. Musika aldetik ere ondo hornituta egongo dira festazaleek, Akelarre eta Zelaia anaia ariko baitira festari doinua jartzen.

Goizean ere izango da zeri-kusi: garbiketa egin ondoren dianarekin hasiko dira, ondoren txirrindulari proba, bakailao lehiaketa, gimnastika erritmikoa... Herri bazkarian bilduko dira auzotarrak giro ederrean eta honen amaieran mus txapelketa izango da.

Eguneko menuak eta menu bereziak aukeran.

**IRUNA** JAIETAKO **ondo pasa jaietan**

© 943 11 98 28  
Amaroz auzoa • TOLOSA

**ARIBE** ERREMENTARIAS S.L.

Restaurazioa...

Usabal Industriegunea, 8-D • TOLOSA • Tel.: 943 67 45 96

**TOLARE-SAGARDOTEGIA** Jatorrizko Sagardoa

**SARASOLA** ondo pasa sanpedroak!

Sagardotegia - ASTEASU  
Tel.: 943 69 02 83  
Zumalikardi Baserria - ANOETA  
Tel.: 943 65 26 22

Larunbata eta igandetan eguerdian irekita

**MARTIN HARATEGIA**

Festa zoriontsuak opa dizkizue

Amaroz auzunea • TOLOSA • Tel.: 943 67 00 58

**FAUSTINO**

Festa zoriontsuak opa dizkizue!

**HARATEGIA-URDAITEGIA** Berdurak-frutak-janariak

Amaroz industr. 28  
TOLOSA • Tel.: 943672227

MARCOS - GORKA  
Amaroz industr. 10 - beheha  
TOLOSA • Tel.: 943 671856

BIDEGOIAN ▶ GIZARTEA



Egurrezko zorua alxatu eta zeramika jarri dute; irradiatze-zorua jarri dute eliza berotzeko. HITZA

# Eraberritutako elizaren inaugurazioa

Urtebetetik gora iraun dute San Bartolomeko parrokia eraberritzeko lanek; inaugurazioa biharko mezan izango da



Aldareko zoruko egurra aldatu dute eta atzealdean marmolezko eskailerak jarri dituzte; aulkiak ere berriak dira. HITZA

OLAIA ESKITXABEL

Urte bete baino gehiagoz luzatu dira San Bartolome parrokia eraberritzeko lanak. Bihar, inaugurazioa izango da 11:30eko mezan; bertan, besteak beste Juan Maria Uriarte, Donostiako gotzaina eta Manuel Eguiguren, Beniko gotzainordea egotea espero da. Ondoren, *luncha* izango da.

Teilatua konpontzea izan zen lehenengo lana; hori amaitu ondoren, argindar instalazioak berritzeari ekin zioten. Dorrea daraman metalezko eskailera ere berritu zuten. Jarraian, tenplu eta aldareko zorua berritu zituzten: «Elizako zoruko egurra altxatuta zegoen hezetasuna zela-eta; egurra jarri ordez,

zeramika jartzea egokiago ikusi zen», azaldu dute lanen jarraipena egin duen batzordeko kideek.

Berogailuaren instalazioari dagokionez, irradiatze-zorua jarri da. megafonia berria, korurako ate berria, bataiharriaren lekualdaketa, elizaren margoketa... izan dira, besteak beste, gauzatu diren lanak.

Lanak burutu ahal izateko ate asko jo dira: Udala, Gotzai-

DIRU SARRERAK ▶

LEHENENGO FASEA

- Foru Aldundiak.** 372.000 euro.
- Gotzaitegiak.** 60.903,40 euro.
- Herriak.** 955.579,26 euro.
- Udalak.** 54.551,30 euro.
- Erakundeak (Kutxa).** 6.000 euro.

BIGARREN FASEA

- Foru Aldundiak.** 18.000 euro.
- Gotzaitegiak.** 18.000 euro.
- Herriak.** 52.187,16 euro.
- Udalak.** 18.000 euro.
- Kutxako mailegua.** 30.000 euro.
- Zorra.** 5.200 euro.

tegia, Foru Aldundia... lanean buru-belarri egon direnek «bereziki herritarren laguntza» eskertu nahi izan dute.

Oraindik zereginik geratzen da: kupularen konponketa eta sakristiaren eraberritzea, esaterako.

Hori aurrera eramateko eta orain arteko zorrari aurre egiteko dirua biltzeko kaxa bat jarriko da biharko mezan.

GUTUN@K ▶



## Baliarraingo herriari:

Baliarrain biztanlez txikia, bihotzez handia.

Joxe Antonioren hiletan ikusi, bizitu eta sentitu nuenak bultzatu nau idatzitza hau egitera. Baliarraingo herriari eskaini nahi diot.

Baliarrainek astelehen arratsaldean maitasunaren paradisu zirendien. Une gogor hartan, ikustekoa zen bertako giroa, Joxe Antoniok mezezi bezalako agur goxoa emateko dena ondo antolatuta zegoen.

Aste iluna bizi izan dugu Joxe Antonio matte genuen guztiok. Baliarraingo gazteok, ordea, senari eta bihotzari ja-

rraituz, ez zenuten etsi Joxe Antoniorekin topo egin arte.

Baliarrainen gauza bat soma dezake inguratzen den edozeinek: Jatortasun eta maitasunaren baratzia ondo jorratuta dagoela. Bestela nola arraio egin horrelako gauzak?

Joxe Antonio zerutik begira badago, harro sentituko da baliarraindarra izateaz.

Baliarrainek umiltasun eta zintzotasunaren gidari bat galdu du. Baina, dagoen lekutik lagunduko du Baliarrainek duen berezitasunari gogor eusten.

Ez aldatu Baliarrain!!!

Baliarraindarra izateak poza ematen dit; bertan ez bi-ziagatik bihotzean daramat jaioterria.

HERRIKO ALABA BAT ▶ BALIARRAIN

AMASA ▶ GIZARTEA

## Errauste plantaren kokapena erabakitzeke

Amasamendin kokatu daiteke Gipuzkoako bigarren errauste planta

O.ESKITXABEL

Uztailaren 19an erabakiko dute Gipuzkoako bigarren errauste plantaren behin betiko kokapena.

Zaborra erretzeko planta hartzeko bederatzitako balizko herrien zerrenda aurkeztu zuen pasa den astelehenean, ekainaren 28an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako diputatuak, Luis Maria Oiarbidek: Bergara, Usurbil, Zubieta, Donostia, Zestoa, Urnieta, Ormaiztegi, Beasain eta Villabona (Amasamendi).

Aurkeztutako txostenean, mailakatu egiten dira kokagune posibleak; Amasamendiko zonaldea «leku egokia» izan daitekeela dioen bezala, beste batzuk oso egokiak edota nahiko egokiak direla zehaz-

ten da. Errauste plantaren kokapena erabakitzeke bilera burutu zuten herenegun, uztailearen 1ean, Batzar Nagusietan. Lau orduko bileraren ondoren, errauste plantaren kokapenaren erabakia atzeratzea erabaki zuten.

Behin betiko erabakia

Uztailaren 19an egingo da horretarako bilera; bozka gehien lortzen dituen kokapena izango da hautatuko dena.

Bozkatzeko ahalmena izango dute aukeratutako zortzi herrietako udalek eta zazpi mankomunitateek. Hamabost bozka izango dira, beraz; eta bozken arteko berdinketa egotekotan Diputazioak bozka berdinketa hausteko aukera izango du.



**zuhatzki**  
Zurgindegia

Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurria



**JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ**

Tel.: 943 67 36 11 • Faxa: 943 67 36 55  
"Cuatro vientos" Industrialdea, 1  
Txarama auzoa • 20491 Leaburu



**SAHATSA** DIETETIKA ZENTRUA

**BELARDENDA**

Errota, 5 • Tel.: 943 69 42 79

Kale Nagusia, 28 • Tel.: 943 69 40 63 • 20150 Billabona

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

# Aker Ibarra Lehen Maila A-n ariko da datorren denboraldian

Taldeak negoziazioetan gogor lan egin arren, ezin izan ditu Zilarrezko Mailan jarraitzeko arazo ekonomikoak gainditu



Aker Ibarra taldea, izako denboraldi hasieran. Inõr gutxi espero zezakeen mailaz jaitziko zirela. HITZA

DANI GIBELALDE

Ezinezkoa gertatu da. Aker Ibarra Zilarrezko Mailan jarraitzeko Lauburu Kirol Elkarteak egindako gestio anitzak ez dira

nahikoak izan taldearen arazo ugari aurre egiteko. Ondorioz, Aker Ibarra mailaz jaitzi eta Lehen Maila Nazionala A-n jokatu du datorren denboraldian.

Aker Ibarra diru arazo ugari zituen: babesle edo erakunde batek 48.000 euroren kargu egitea beharrezkoa zen, baina azkenean ez da horrelakorik gertatu.

Lauburu zuzendaritza batzordeak gogor lan egin du denboraldi berriko prestaketa lanetan izandako arazo larri aurre egiteko; azkenean, diruak eragotzi du Aker Ibarra dagokion mailan jokatu ahal izatea, orain arte zelaian kirol emaitzekin lortutako Zilarrezko Mailan, alegia.

Zelaiarekin hasi ziren arazoak. Espainiako Ligak ez zuen onartu orain arte bezala Aker Ibarra Belabieta kiroldegian jokatzeko, arau berriei gutxienez 1.000 lagunentzat tokia duen kiroldegi bat beharrezkoa dela eskatzen dutelako. Partidu ofizialak Tolosako kiroldegian jokatzeko akordioa lortu zuten, baina taldeak Ibarra entrenatzen jarraitu behar zuen. Espainiako Ligak onartu hartu zuen Laubururen proposamena eta arazo hori konponduta geratu zen.

## Arazo ekonomikoak, gakoak

Ondoren, arazo ekonomikoek aurre egin ahal izateko erakunde ofizialengana jo zuten taldeko arduradunek. Aker Ibarra ordezkariek aipatu dutenez, «Ibarra Udala izan zen hasieratik erantzun positiboa eman duena, gainerakoak ez bezala. Gutxienezko gastuetan oinarritutako aurrekontu bat egin arren, horrekin ez ziren taldearen beharrak asetzen. Hortaz, negoziazioak beste norabide baterantz zuzendu ziren. Hala ere, dena behar bezala egiteko denbora gutxi izateak eragotzi du azkenean helburua ez betetzea».

IRURA ▶ MOTOZIKLISMOA

## Lopetegi gaur ariko da Montmeloko proban

Irabaztea du helburu 13:00etan hasiko den 24 orduko erresistentzia proban

D. GIBELALDE

Martin Lopetegi irurarrak gaur parte hartuko du Montmelon (Katalunian) jokatu den 24 orduko erresistentzia proban. Orain arte Mikel Zabaleta ibartarra eta Tony Gil mallorkarrekin parte hartu du proba horretan; Montmelon, azken bi urtetan bigarren izan dira euren mailan, Superstock-ean, eta orokorrean, seigarrenak. Gaurkoan, berriaz, Zabaleta ez da ariko, eta haren ordez Alvaro Monreal piloto kataluniar gaztea izango da. Lehen aldiz ariko da Za-

baletarekin eta Gilekin talde berean. Proba irabaztea dute helburu Super-stock kategorian, eta sailkapen orokorrean, podium-ean sailkatzeko itxaropentsu dira.

Iazko moto berarekin ari dira lanean. Hogei lagun inguru —Tolosaldekoak gehienak— izango dituzte laguntzaileran: sukaldariak, mekanikoak, teknikoak, masaje emaleak... Bi ordutik behin gurpilak aldatu, orduero gasolina bota eta pilotoa aldatu, sei ordutik sei ordua frenoaren pastilak aldatu... Ea helburua betetzen duten.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 69 24 23

**Baliarrain.** Medikua: 88 90 03

**Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61

**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34

**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29

**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Lizartza.** Medikua: 68 20 77

**Orendain.** Medikua: 65 55 95

**Orexa.** Medikua: 68 22 28

**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurrumendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

**Villabona-Aitzondo.**

Anbulatorioa: 00 69 70

**Zizurkil.** Aitzondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitzarantz autob.: 948 221015

▶ Taxis: 67 04 20

▶ Taxis (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aurrin aldizkaria: 30 07 32

▶ Ttipi ttipa ald.: 948 631888

▶ Txolarre Irratia: 69 80 38

▶ Karrape Irratia: 948 610914

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Tolosa, M. I. Kale Nagusia

7 (Tolosa). 67 06 48.

Larraia. Elbarren 95 (Leitza). 112.

TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.

tolosaldean\_publici@tolosaldeko

hitza.info

**Tolosa.** 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

**Villabona-Aitz.** 687 41 00 22.

villabona\_aitzondo@tolosaldeko

hitza.info

**Anoetaidea.** 687 41 00 22

anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info

**Ibarraldea.** 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

**Alegialdea.** 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

**Leitzaidea.** 687 41 01 18.

leitzaidea@tolosaldeko-hitza.info



## Jaietako kartelak prestatzen

**GAZTELU** ▶ Herriko haur eta gaztetxoak izan ziren protagonista joan den larunbatean. Herriko jaiak pixkanaka hurbiltzen ari direla eta kartelak prestatzeko haurren marrazkiak erabiliko dituzte. Hala, marrazten aritu ziren joan den larunbatean herriko txikiak. Iaz bezala, aurten ere behi bat marrazteko proposatu zieten, eta gogotsu aritu ziren haurrek ekinean. Kurtso amaiera ospatzeko, txokolatada eta meriendatxo bat egin zuten. Haurrek egindako marrazkien, montaje moduko bat egingo dute kartela behar bezala osatzeko. HITZA

ARESO ▶ UDALA

# Eskol-etxean egin beharreko inbertsioak onetsi dituzte

Pake Toki elkartearen gaineko espedienteari ezarritako alegazioei eginiko erantzun-txostena ere aurrera atera zen



Asteazkenean, Aresoko udalbatza aktak irakurtzen ari zen bitartean. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Asteazken gauetz, herritar mordoska bat bertan zela burutu zen udal batzarrean, Eskol-Etxean egin beharreko lanen inbertsioa onartu zen, besteak beste. Zehazki eskolako teilatua berritzea erabakia hartu zen, alkatetza duen taldearen aldeko bozkekin. Izan ere, Udalak berak aurkeztutako lanen

memorian, jolastokiko zoria moldatzea, fatxada margotzea eta zenbait pertsiana aldatzea aurreikusita bazegoen ere, dirulaguntza teiltaturako soilik eman behar omen du Nafarroako Gobernuak, hots 27.887 euro. Hala ere gainerako lanak, Udalak bere gain hartuz egiteko asmoa agertu zuten.

Dezenteko eztabaida eragin zuen gaia, Pake Toki elkarteak

Eskol-Etxeko baxuetan erabiltzen duen lokalaren alokera izan zen.

## Pake Tokiko helegitea

Martxoan burutu batzarrean, herriaren lokal hauek elkarte horri alokatzen jarraitzeko hartu zuten akordio hari, nonbait, administrazio-helegitea jarri dio Udalean oposizioan dagoen taldeak. Eta alegazio

hauei egindako erantzun-txostena aurkeztu zen eztabaidarako. Batzuk «eskolatarako utzi zen eraikuntza, bestelako eginkizunetan erabiltzea ez da egokia, gerora ere ume gehiago izanen direla kontutan hartuz», adierazi zuten, besteak «eskola leku gehiagoz behartzen bada, oraindik ere pisua hutsik dago», zioten bitartean. «Elkarre horrek, aisialdirako nahiz kultur jardunean, herriaren duen eraginkortasuna» behin eta berriz azpimarratuz. Gauzak horrela, ez zen akordiorik lortu eta bozketan gehiengo onartu zen, alegazioei erantzuteko proposatu zen txostena.

Euskararen inguruan ere izan zen eztabaida. Udaletako idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuei buruz Nafarroako Gobernuak plazaratu duen foru-legean, euskarari ematen dion tratamenduari oharpena egitea proposatu zen. Horretan «udalak lanpostu bat ateratzekoan hizkuntza betekizunetan euskalduna izatea eskatzen bada, erabaki hori Udalari» dagokiola aldarrikatzen zen. Batzarkideen gehiengo bozkekin onartua geratu zen.

Bestalde, hirigintzako gaitez ere aritu ziren, zehazki Elutseder industrialdea ikutuz.

## Birziklapen planta

Hirigintza planean, zonalde horri dagokion atalean aldaketa batzuk onartu zituzten, «arau eta planoekiko, lekuan bertan exekutatu dagoenaren desberdintasunak erregularizatzeko, hots biak bat etor daitezkeen», argitu zuten. Bide batez, han kokatuta dagoen enpresa batek, berak sortzen dituen hondakinak birziklitzeko asmoz, egin duen zabakunderako proposamena onetsi egin zen eta horretarako dotazio-eremuaren kokapena lekuz aldatzeko akordioa hartu zuten.

Orain dela urte gutxi arteko ohitura bat berreskuratzea ere erabaki zuten asteazkeneko batzarrean: aurtengo festetan zezen ikuskizunak izatea. Erabaki hau aho batez hartutakoa izan zen.

LEITZA ▶

## Plazako pilota txapelketan gaur azken jardunaldia da

15 bikotek hartzen dute parte eta aurrera joateko txartelak gaur erabakiko dira

J. ASTIBIA

Gaur arratsalde, 16:00etatik aurrera, eskuz binakako plazako txapelketako azken jardunaldia, bostgarrena, jokatu da.

Aurrera KEak antolatzen duen txapelketa horretan, hamabost bikote ari dira parte hartzen. Bikote hauek hiru taldetan banatuta daude, talde bakoitzean bosna, eta bikoteek launa partidu jokatu dituzte, zozketaz suertatutako beste baten aurka, gaurkoak kontutan hartuz. Jardunaldi bakoitzean taldeko bikote batek atsedena izan du.

Zuzenbidez gaur bukatuko den lehen fase horren ondoren, kontuak egin eta sailkapena plazaratuko da. Antolatzailerak argitu dutenez, ordea, aurreko zenbait partidu oraindik jokatzeak daude eta, fase honek luzapena izanen omen du, guztiek beren partiduak bukatu arte.

Kontuak kontu, San Fermin ondoren jokatuko dituzte finalerdiak. Fase horretara hiru taldeetako lehendabizikoak igaroko dira eta gero bigarren hoberena ere bai.

Hau da azken jardunaldiko egitaraua: P. Sagastibelza-A. Sagastibelza/J. Mariñelarena-I. Mariñelarena; J.M. Zabaleta-P. Belauntzarán/I. Zabaleta-J. Apezetxea; J. Lazkano-N. Buldain/J. Larraia - J.J. Mariñelarena; J. Zeballos-M. Iriarte/E. Andueza-I. Aizagirre; Tximista-Joxe Mari/A. Abruza-J. Arangoa; J. Sagastibelza-I. Alduntzin/I. Aldaia-U. Olano.

LEITZA ▶ KULTURA

## Liburutegiak udako ordutegia du jada

Liburutegian udako ordutegiari ekin diote iada eta neguan ez bezala, goizetik irekitzen da: 8:30etik 14:30era eta lehen bezala, asteleheneetik ostiralera. Uda izanik eta herriko igerilekua atezate dagoenez haliatuz, aisialdian irakurketari txoko bat egin nahi izanez gero behinik behin, zuzenean handik ere sar daiteke eta ohikoak diren zerbitzuak erabili: mota guztietako liburukien maileguak egin, Interneta erabili (aurrez ordua hartzea komenigarri izanik), bazkide egin... eta egunkariak irakurri ere bai. Handik bertatik jakitera eman dutenez, aurtengo denboraldian ohikoak ez dituzten bestelako egunkariak ere hartuko omen dituzte eta liburutegia itxi ondoren, egunero, igerilekuan utzi.

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

**ARAMBURU**  
Salgai (Irura). Duplex-a salgai Etxezarreta kalean.  
**Alokatzeko (Salou)**. Bi logela dituen apartamentua. 6 lagunen-tzat. Igerilekuarekin. Hondartza gertu.  
**Alokatzeko La Pineda (Salou)**. Apartamentua alokatzen da. Hondartza gertu.  
**Alokatzeko (Tolosa)**. Denda bezala egokitua dagoen lokala alokatzen da Laskorain kalean.  
**Alokatzeko (Tolosa)**. 145m<sup>2</sup>-ko bulegoa Larramendi kalean.  
**Alokatzeko (Irura)**. Garajeak Mikel Goi Aingeru enparantzan  
943 65 17 13 / 677 46 09 16

**AGENDA ▶**  
**DEIALDIAK**

**Aduna.** Asteburu Mundiala: 20:30ean, bertso afaria. Txulobi eta Muxkil elkarteek antolatuta.

**JAIAK**

**Asteasu.** Haurren Eguna: 10:00: haurren arteko krosa eta marrazketa lehiaketa; 14:00: haurren arteko bazkaria; ondoren, *Gaixotzea ez da txantxa* haur antzerkia eta jolasak; 17:00: Asteasuko XVIII. Mus Txapelketa Herrikoa; 23:30: Diskotop Disko Festa.

**Tolosa. Amaro azoia.** 08:00: garbiketa orokorra; 09:30: diana; 10:30: IV. Pabxi Rodriguezen oroimenezko txirindularitza proba, eta faxada eta balkoi loratuen lehiaketa; 11:30: bakailaoa ajoarriero erara lehiaketa; 12:00: Tolosa CFko gimnastika erritmikako taldearen emanaldia; 14:30: herri bazkaria; 16:30: II. Mus Azkarra Txapelketa; 22:00: Amaro azoia Danborrada Nagusia; 23:30: Akelarre taldearekin dantzaldia; 24:00: Zelaia anaiak taldearekin dantzaldia ez hain gazteentzat.

**Tolosa. Urkizu azoia.** 20:00: suziriak eta kanpaiak joko dituzte; ondoren, azoko afaria. Gaur trikitilariak alaituko dute.

**GARGARDO AZOKA**

**Iruira.** Iruirako Ikastolaren aldeko Garagardo Azoka. Gaur eta bihar, 18:00etatik 01:00etara, frontoian.

**ZINEMA**

**Tolosa.** *El efecto mariposa.* 19:30ean eta 22:30ean, Leidorren.

# Urte askoan

**IBARRA ▶ Rosalia Agudo Benegasek 100 urte bete zituen atzo eta etxekoekin batera ospatu zuen; osasuntsu, eta bizi-poz handiarekin aurkitzen da**



Foru Aldundiko ordezkari Fernando Etxebarria, Rosalia Agudo, eta Ibarra alkate Txelo Romeo, atzo Agudoren etxebizitzan. DANI GIBELALDE

**DANI GIBELALDE**

**M**ende bat sortu zenetik. Ez da ez ahuntzaren gauerdiko eztula. Etxekoen berotasunean ospatu zuen bere ehungarren urteurrena atzo Rosalia Agudo Benegasek.

Burua ondo du —askok baino askoz hobeto—, entzumen eta ikusmen aldetik arazorik ez, makulu gabe ibiltzeko gai da... Osasunari dagokionez, 100 urte bizkarrean izan arren, ez dago kexatzeko moduan.

Kalera irtetzeko ohitura ere badu, bueltatxo bat ematera.

Sortzez Valle de Matamoroko (Extremadura), Ibarra bizi da: batzuetan Azkue auzoan alabaren etxebizitzan egon ohi da, besteetan Euskal Herria kalean bere beste alaba baten etxean.

Egundoko oroimena du eta aspaldiko makina bat pasadizo ditu gogoan. Hitzuna da oso. «Soroan gizonak bezala lan egiten nuen; lan gogor asko egindakoa naiz», aipatu du. Horrenbeste urtez bizirauteko

sekreturik bada, honakoa izan daiteke: «Oso alaia naiz, bizitasun handikoa, eta bizi-poz ere galanta dut».

Bisita berezia izan zuen atzokoan. Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako kide Fernando

Etxebarriak plaka bat eman zion, Gonzalez de Txabarri diputatuaren izenean bere urtemugarengatik zorionduz, eta Txelo Romeo Ibarra alkateak ere lore sorta bat eskaini zion zorionak emateko.



**ZORION AGURRAK ▶**

Urtebetetzea, agurrak... argitaratzeko etorri HITZAren egoitzara; ekarri argazkia



**URTE ASKOAN**  
**Xabi Unanue Gil (Tolosa).**  
Gaur 12 urte. Zorionak familiaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
**Aitzol Otamendi.** Gaur 8 urte. Zorionak aita, ama eta Ekaitzen partetik.



**ZORIONAK TXAPELDUN**  
**Iraitz Olaetxea (Lizartza).**  
Gaur 13 urte. Urte askoan eraman txapela kaskoan. Aldabeke osaba-izebak.



**URTE ASKOAN**  
**Oihan Parra Orbegozo (Ikaztegietia).** Gaur 2 urte. Zorionak etxekoen partetik.

**EZ ERABAKI ETORKIZUNA GU EZAGUTU GABE**  
ETORKIZUN HAUNDIKO LANBIDEA

- Erresuma Batuko leapandegiko III. Maila
- Nazioarteko Pivot-Point Diploma
- Gune Homologatua
- Lan Birtsa, lanpostu indize handia
- Goizeko eta arratsaldeko bandak

San Francisco 39, behea  
**TOLOSA**  
Tel. 943 654361

**GUREKIN,**  
**ZUZENEAN LANERA**

[www.centrosbeta.com](http://www.centrosbeta.com)